

2019-07-23ko EZ-OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2019ko uztailaren 23an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Gorka Murua Macuso izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Olaia Nieto Legarra eta Leticia Aristi Oria.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Ana Jesus Leunda Gurruchaga, Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian, Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Inor ez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxienerako partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTAK ONARTZEA (2019-06-15; 2019-06-25; 2019-07-02).

Udalbatzak, aho batez, 2019ko ekainaren 15eko, ekainaren 25eko eta uztailaren 2ko bileren aktak onartu ditu.

Eztabaida:

Alkateak adierazi du ekainaren 25eko aktan oposizioko talde buruaren adierazpenak azaltzen direla, alkate berriaren soldataren kopuruari buruz eta aipatu zuela soldata berria, azken alkatearen soldataren ehuneko hogeita gehiago zela, baina berak argitu nahi duela ehuneko hamalau gehiago dela eta ez hogeita.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019/118 DEKRETUTIK 2019/154 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2019/118 dekretutik 2019/154 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

UDALEKO LANGILEEN SOLDATA OROKORRAREN IGOERA UZTAILAREN 1ETIK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2019ko ordainsarien igoerari dagokionez, 2018-12-27an 2018ko abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean; horren bitartez onetsiko dira ordainsarien arloko neurriak sektore publikoaren esparruan.

Hain zuzen, Lege horren 3.Bi artikulua hau xedatu du:

“3. Bi artikulua.

2019. urtean, sektore publikoko langileen ordainsarien igoera globala ez da inola ere izango 2018ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariak baino %2,25 handiagoa, konparatutako bi denboraldien homogeneotasunari dagokionez, hala langileei begira, nola antzinatasunari begira ere; horretarako, ez dira kontuan hartuko gizarte ekintzarako gustuak, zeinak, orokorrean, 2019an ezingo baitira izan 2018ko gustuak baino handiagoak.”

Aurreko guztiaz gain, Barne Produktu Gordinaren (BPGd) igoera 2018ko prezio iraunkorretan ehuneko 2,5ekoa edo handiagoa izango balitz, 2019ko uztailaren 1ari dagokion eraginarekin, beste ehuneko 0,25eko soldata igoera erantsiko litzaioke. Aipatutako ehuneko 2,5ekoa baino txikiagoko hazkundera izanik, igoera hein berean apalagoa izango da,

En relación con los incrementos retributivos 2019, el 27/12/2018 se publicó en el Boletín Oficial del Estado el Real decreto Ley 24/2018 de 3 de 21 de diciembre, por el que se aprueba medidas urgentes en materia de retribuciones del sector público.

En concreto, el art. 3.Dos del referido Real Decreto - Ley dispone lo siguiente:

"Artículo 3. Dos.

En el año 2019, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,25 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2018, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo y sin considerar a estos efectos los gastos de acción social que, en términos globales, no podrá experimentar ningún incremento en 2019 respecto a los de 2018.

Además de lo anterior, si el incremento del Producto Interior Bruto (PIB) a precios constantes en 2018 alcanzara o superase el 2,5 por ciento se añadiría, con efectos de 1 de julio de 2019, otro 0,25 por ciento de incremento salarial. Para un crecimiento inferior al 2,5 por ciento señalado, el incremento

esandako ehuneko 2,5 horren gainean ezarritako murrizketaren arabera. Era horretan, igoera orokorren emaitzak honako hauek izango dira:

BPGd 2,1aren berdina: %2,30.

BPGd 2,2aren berdina: %2,35.

BPGd 2,3aren berdina: %2,40.

BPGd 2,4aren berdina: %2,45.

Atal honetan xedatuta dagoenaren eraginez, BPGd-ren igoerari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) urtero argitaratzen duen BPGd-ren balio kalkulu aurreratua hartuko da aintzat. INEk BPGd-ren aurrerapena argitaratu ostean eta, aldeztu aurretik 2018ko martxoaren 9ko enplegu publikoa eta lan baldintzak hobetzeko Erabakiaren Jarraipen Batzordeari jakinarazita, Ministro Kontseiluko Erabakiaren bitartez onetsiko da, egokia baldin bada, igoera aplikatzea. Aipatutako Erabakia autonomia-erkidegoei, hiri autonomoei eta Udal eta Probintzien Espainiako Federazioari helaraziko zaie."

Ministroen Kontseiluak 2019ko ekainaren 21ean egindako bileran 2019ko uztailaren 1etik aipatu den igoera onartu du.

Idazkari kontu-hartzailearen txostena ikusita.

Hori horrela, eta Alkatearen proposamena ikusita eta indarrean dagoen legediak jasotako eskumenak betetz, Udaltzat, aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA:

1º.- Udal langileen ordainsarien igoera orokor hau onartzea: 2019ko uztailaren 1etik %0,25.

disminuirá proporcionalmente en función de la reducción que se haya producido sobre dicho 2,5 por ciento, de manera que los incrementos globales resultantes serán:

PIB igual a 2,1: 2,30 %.

PIB igual a 2,2: 2,35 %.

PIB igual a 2,3: 2,40 %.

PIB igual a 2,4: 2,45 %.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, en lo que a incremento del PIB se refiere, se considerará la estimación avance del PIB de cada año publicada por el Instituto Nacional de Estadística (INE). Una vez publicado el avance del PIB por el INE y, previa comunicación a la Comisión de Seguimiento del Acuerdo para la mejora del empleo público y de condiciones de trabajo de 9 de marzo de 2018, mediante Acuerdo del Consejo de Ministros se aprobará, en su caso, la aplicación del incremento. Del citado Acuerdo se dará traslado a las Comunidades Autónomas, a las Ciudades Autónomas y a la Federación Española de Municipios y Provincias."

El Consejo de Ministros en sesión celebrada el 21 de junio de 2019 ha aprobado el incremento del 0,25% de incremento salarial con efectos de 1 de julio de 2019.

Visto el informe del Secretario-Interventor.

Vista la propuesta de la Alcaldía y de acuerdo con las competencias señaladas en la legislación vigente, La Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

ACUERDO:

1º.-Aprobar un aumento general de las retribuciones del personal municipal del 0,25% desde el 1 de JULIO de 2019.

2º.- Portzentaje berdinean igotzea udal hautagaien ordainsaria.

2º.- Aumentar en el mismo porcentaje la retribución de los cargos electos municipales.

LAUGARREN GAIA

2018KO UDALEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA HALA BADAGOKIO.

2018ko ekitaldiko Irurako Udaleko Kontu Orokorra aurkeztu da. Kontu Orokor hau udal erakundeko kontua bakarra da, ez dagoelako beste udal entitaterik. Kontu Orokorra idazkari kontu-hartzaileak prestatu du eta Udalaren buruak (Alkate- Lehendakariak) eman du.

Kontu Orokor honek Udal Kontu Batzorde Bereziaren 2019ko uztailaren 18ko bileraren aldeko txostena jaso du.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 2019ko uztailaren 17ko iragarkiaren bidez jende aurren jarri da hamabost lanegunez, interesdunek egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkezteko.

Hori ikusita, aho batez, udalbatzak, hau erabaki du:

ERABAKIA:

1º.- 2018ko ekitaldiko Irurako Udaleko Kontu Orokorra onartzea. Nahiz eta hori izan, baldintzatu izango da jende aurreko izapidearen emaitzarekin, izan ere, erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik ez da aurkeztu.

2º.- Kontu Orokorraren berri ematea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, haren arautegian berariaz ezarritakoaren arabera.

BOSGARREN GAIA

ETXEBIZITZA FAMILIARRETIK BOTATZEA DELA ETA KALTE BERATASUN-EGOERAK HAUTEMAN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Eudelek Lankidetzeta hitzarmena sinatu du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin, etxebizitza familiarretik botatzea dela eta kalte beratasun egoerak hauteman eta izaera sozialeko neurriak hartu ahal izateko.

Hitzarmenaren xedea jarduteko protokolo bat ezartzea da, etxebizitzatik botatzea ekar lezaketen prozeduretan, albait arinen erantzun ahal izateko.

Horrelako kasuetan gizarte zerbitzuei jakinaraziko zaie, baldin eta zerbitzu horiei jardutea badagokie, egoerari erantzun bat emateko.

Gizarte Zerbitzuetako Informazio Batzordeak 2019ko uztailaren 17an egindako bileran aldeko txostena onartu du.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

1º.- Lankidetzaren Hitzarmen hori onartzea eta udal zerbitzuen laguntza ematea.

2º.- Irurako Alkate- lehendakariari, Gorka Murua Makuso jauna, ahalmena ematea udaleko presidente eta ordezkari den aldetik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985, Legearen 21.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko eta edozein izapide egiteko aipatu den helburu horrekin.

SEIGARREN GAIA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA, EAEKO ADMINISTRAZIOARI ZUZENDTUAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROAN AURKEZTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Aurkeztu da, EAeko Administrazioari zuzendutako idazkiak Udala Erregistroan aurkezteko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 .b) Artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen laugarren xedapen iragankorraren bidez ere.

Kontuak, Ogasuna, Administrazioa, Ekonomia eta Enpleguari buruzko Informazio Batzordeak 2019ko uztailaren 18an egindako bileraren aldeko txostena onartu du.

Hori ikusita, udalbatzak onartu du, aho batez, eta udalbatzarren legezko kide kopuruaren gehiengo osoak aldeko botoarekin, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen 47.2.h) artikulua arabera, erabaki hau:

ERABAKIA:

1º.- Aipatu den lankidetzaren hitzarmena onartzea.

2º.- Irurako Alkate- lehendakariari, Gorka Murua Makuso jauna, ahalmena ematea udaleko presidente eta ordezkari den aldetik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985, Legearen 21.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko eta edozein izapide egiteko aipatu den helburu horrekin.

ZAZPIGARREN GAIA

LATS DANTZA TALDE ELKARTEARI 2018-2019 IKASTAROAREN GASTUAK FINANTZATZEKO DIRU LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Lats Dantza Talde Elkartearen helburu nagusia herriko haurrak euskal dantzaren munduan murgiltzea eta euskal kulturako dantzak irakastea da, gure kulturekiko jakin mina piztuz.

Bere jardueraren gastuak finantzatzeko 2018/2019 denboraldiko, udal honekin hitzarmena sinatuko du, 3.000 euroko diru laguntza emateko.

Kultura Informazio Batzordeak 2019ko uztailaren 16an egindako bileran aldeko txostena onartu du.

Hori ikusita udalbatzak, aho batez, erabaki hau onartu du:

ERABAKIA

1º.- Aipatu den hitzarmena onartzea.

2º.- Irurako Alkate- lehendakariari, Gorka Murua Makuso jauna, ahalmena ematea udaleko presidente eta ordezkari den aldetik, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985, Legearen 21.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, hitzarmena sinatzeko eta edozein izapide egiteko aipatu den helburu horrekin.

ZORTZIGARREN GAIA

UEMA MANKOMUNITATEKO BI ORDEZKARIEN ORDEZKOAK IZENDATZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak adierazi du UEMA Mankomunitatearen Estatutuaren arabera udalek bi ordezkari eta bere ordezkoak izendatu behar dituztela.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1º.- Irurako Udalaren ordezkari gisa eta bere ordezkoak izendatzea zinegotzi hauek Uema Mankomunitatean:

-Titularrak: Noelia Lataburu Ortiz eta Olaia Nieto Legarra.

-Ordezkoak: Gorka Murua Macuso eta Leticia Aristi Oria.

BEDERATZIGARREN GAIA

LGTBI EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Adierazpen hau aurkeztu da:

Beste urtebetez, maiatzaren 17an, LGBTIfobiaren kontrako nazioarteko eguna ospatzen dugu, aipaturiko kolektiboaren eskubideen aldeko eta diskriminazioaren kontrako jarduketan ardatz katalizatzailerik gisa.

Bistakoak dira horren harira eman diren aurrerapausoak, legegintza-mailan zein gizartearen idearioan. Aurrerapauso horiek arauen barruan sartzen ez diren sexualitateekiko sentsibilitate berria garatzea posible egin duten lorpenak dira. Hala ere, honelako egun batean, desberdinkeria azpimarratzeko betebeharra daukagu, bai eta gaur egun LGBTI pertsonen zenbaitetan jasan ohi duten eskubideen urraketa larria salatzea ere.

2019. urte honetan, kolektiboak nazioartean pairatzen duen egoera konplexuan jarri nahi dugu azentua. ILGAK (*International Lesbian, Gay, Bisexual, Trans and Intersex Association*) "Estatu homofobia 2019" bere txostenean jasotzen duenaren arabera, 70 herrialde dira sexu bereko pertsonen arteko harremanak kriminalizatzen jarraitzen dutenak; horietako 11 herrialdek, aipaturiko arrazoa dela eta, heriotza-zigorra ezartzeko aukera aurreikusten dute beren zigor kodeetan. Egoera are dramatikoagoa da kontuan hartzen baditugu LGBTI kolektiboak beste herrialde askotan pairatu behar dituen gorroto-krimenak eta eskubideen urraketa larriak.

LGTBI pertsonak halaberrez ihes egitera behartzen dituen egoera dramatiko da, eta zenbait kasutan, deserrotze-egoeran bizi dira, oinarrizko beharrezko prekaritate-egoeran eta zaugarritasun-egoera handian. Hori horrela, harrera-herrialdeak garen heinean, ez gara gai beti harrera behar bezala egiteko eta, ondorioz, bizi-kalitatea bermatzeko. Datu horiek baliagarriak izan behar dira beharrezko doikuntza bat egiteko eta baliabideak areagotzeko deialdi gisa.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, planteamendu erreazionarioetatik areagotzen ari diren diskurtsoek zurrumbiloren erdigunean jartzen dutela LGBTI kolektiboa, gorrotoa zabaltzen baitute eta etengabe mehatxatzen baitute funtsezko eskubideen galerarekin. Diskurtso horien artean sartzen dira "sendatzeko" ekimen gisa ezkututzen diren sasizientzia-printzipioetan oinarrituta arauen barruan sartzen ez diren sexualitateen patologizazioa betiketzea bilatzen duten diskurtsoak.

Ezin dugu ahaztu ere jatorria sexu- eta genero-dibertsitatearekiko intolerantzia duten eta gure inguruan etengabe ikusten ditugun gertakariak. Hala erakusten dute Barne Ministerioak eta Erabereanek (Tratu Berdintasunerako eta Diskriminaziorik ezerako Sarea) argitaratu dituzten gorroto-delituen inguruko txostenetan edo "Euskadiko gorroto-gertakariei buruzko txostenean" (Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak argitaratua 2018an) jasotako datuek.

Era berean, oraindik ere mantentzen diren zenbait alderdi gogorarazi nahi ditugu: heteroarauekin bat ez datozen sexualitateak hierarkizatzen eta diskriminatzen dituzten sexu-aurreiritziak, trans kolektiboaren patologizazioa, gure ikastetxeetan ikusten ditugun jarrera homofoboak, emakume lesbianeiei gizarte-zilegitasuna eta beren eskubideak libreki baliatzeko aukera kentzen dien ikusezintasuna eta abar.

Berdinu zerbitzutik, maiatzaren 17 honetan, Euskadi inklusibo bat aldarrikatu nahi dugu, eskubideen erdiespenaren alde eta LGBTI kolektiboak gaur egun oraindik jasan behar duen diskriminazioaren kontrako borrokan ahaleginak bateratuko dituen gizarte zaindari eta proaktibo bat. Elkarbizitzaren bermatzaile gisa finkatuko den Euskadi bat eraiki nahi dugu, dibertsitateetik. Termino hori hizpide dugun esparruan ulertu behar dugu, baina, jakina, baita bere osotasunean ere.

Gure ustez, gizarte-eragile guztien zeregina da gizarte errespetagarri, justu eta integratzaileago bat eraikitzea, eta, horretarako, LGBTI kolektiboarekin, konpromiso-lan esplizituak hartu behar

ditugu gure gain, horrela, oraindik indarrean dauden diskriminazio-planoen kontrako borrokan aurrera egin ahal izateko. Eta hori da, hain zuzen ere, Berdindu Eusko Jaurlaritzako LGTBI kolektiborako informaziorako eta arretarako Zerbitzuak 2002. urtean sortu zenetik izan duen konpromisoa, eta buru-belarri lan egiten du xede horrekin. Pertsona, ikastetxe eta familientzako laguntzak; horiek osatzen dute bere oinarrizko sei-jarduketak; zalantzarik gabe, modu oso positiboan sexu- eta genero-dibertsitatearekin errespetagarria den ideario bat sortzen eta LGTBI pertsonak ahalduz laguntzen diharduen abordatze heterogeneo bat.

Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, mozio hau onartu du.

HAMARGARREN GAIA

NAFARROAKO ERDIALDEKO UHOLDE LARRIEN AURREAN AKORDIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Pasa den uztailaren 8an izandako eurite handiek eta Zidakos ibaiak gainezka egin izanak, bereziki, Nafarroako erdialdeko Tafalla, Erriberri, Puiu, Beire, Pitillas, Leotz eta beste hainbat herri kaltetu zituen, etxebizitzetan, garajeetan eta komertzioetan kalte garrantzitsuak eragiteaz gain, oinarrizko azpiegiturak ere kaltetuak izan zirelarik, baita herrietako komunikazio bideak, kaleak eta landa-bideak ere.

Zoritzarrez, uholde hauek, 25 urteko Zeru Cañada Zorrilla gaztearen heriotza eragin zuten, bizi zen Gardalain herrira kotxez zihoala.

Hondamendi natural honek eskumena duten administrazio publikoen parte-hartzea eskatzen du, baita hain larriki kaltetua izan den eskualde honekiko elkartasun ekonomikoa adierazi nahi duten administrazio guztien diru-laguntza ere. Tafallako eta beste herri batzuetako udalek antolatutako auzolanetan herritar ugari erakutsitako elkartasun pertsonalaz gain, beste toki-entitate batzuek auzolan ekonomiko bat sustatzea posiblea izanen litzateke, besteak beste, euriteek eragindako kalteak moldatzeko behar diren inbertsioei aurre egin ahal izateko.

Guzti honen aurrean, proposamen hau aurkezten da onartzeko:

Lehena.- Udal honek uztailaren 8an Nafarroako Erdialdean gertatutako euriteen eta uholdeen ondorioz kaltetutako herritarrei eta udalerriei elkartasuna adierazi nahi die, eta, bereziki, Zeru Cañada Zorrillaren senitartekoei.

Bigarrena.- Zentzu berdinean eta udalerrri horietako zerbitzuetan edo azpiegituretan euriteek eragindako kalteak berreraikitzen laguntzeko, 500 euroko diru-laguntza bideratzea onartzen du Udalak.

Hirugarrena.- Udal honek kaltetuak izan diren herriei beraien elkartasuna adierazteko auzolan ekonomikoan parte hartzera animatu nahi ditu herritarrak, horretarako kaltetutako udalek ireki dituzten banku-kontuetan egokia ikusten duten ekarpena eginez.

Laugarrena.- Herritarrei akordio hauen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

Eta hori ikusita, udalbatzak, 5 boto alde (EH Bildu) eta 4 abstentzio (EAJ/PNV) onartu du aurkeztutako Mozioa.

Eztabaida:

Ana Jesús Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du, lehena, elkartasuna ematea kaltetutako herritarrei eta hil diren familiei, baina informazio faltagatik abstenituko direla, orain enteratu direlako 500 euroko diru laguntza proposatzen dela. Emandako informazioan ez dela agertzen diru laguntzaren kopuru hori eta horregatik abstenituko direla.

**HAMAIKAGARREN GAIA
IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.**

2019ko 2. hiru hilabeteko fakturen ordainketen batez besteko epearen informazioa aurkezten da.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**HAMABIGARREN GAIA
GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:**

- a) Alkateak adierazi du azken udalbatzan erantzun gabe geratu zela informazio batzordean bertaratzea ordaintzeko edo ez eztabaida. Aztertu dutela 2016ko Euskadiko Toki Entitatearen Legea eta lege honek ez duela derrigortzen ordaintzea eta udalen esku uzten duela erabaki hori. Azken udalbatzan agertu zirela ez ordaintzeko dauden arrazoiak.

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) erantzun du gai hau azaldu zutela, Eudelek aholkatu duela lan hori ordaintzea eta inguruko udalak beraien erabakiak argitaratzen ari direla eta ordaintzen ari direla. Azpimarratu egin behar dela ez bakarrik alkatearen lana, baita zinegotziena ere.

Alkateak erantzun du azken legealdian EH Bilduko zinegotziek uko egin ziotela ordainketa hori kobratzeari.

Noelia Lataburu zinegotziak (EH Bildu) adierazi du gaia berriz aztertu ondoren, erabaki dutela ez ordaintzea.

Ana Leunda zinegotziak (EAJ/PNV) adierazi du azken legealdian EH Bilduko zinegotziek aukera zutela ordainketa hori kobratzeko edo ez, baina orain zinegotziek ez dutela aukera hori.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA